



Kafe tristearen balada
Carson McCullers

ASUN GARRANO HORTZOGONAK BELE

Kafe tristearen balada (I)

Carson McCullers

Kontakizuna irakurri ahala, unetxo batez zalantza bat piztu zait, pentsatu baitut gidoia, eta batez ere pertsonaiak, oreka zail batean ez ote zeuden, "gehiegizkoak" ez ote ziren. Izan ere, hezur-haragizko pertsonaiak izan daitezkeela sinestea zaila da... Eta kontakizun on batek hori sinetsarazi behar dio irakurleari, hau da, irakurtzen ari dena sinesgarria edo gertagarria dela. Beharbada, hori gertatzen da fikzioa nolabaiteko errealitate kostunbrista batekin nahasten delako. Baina, hori

jo behar al da narrazioaren ahuleziazat? Ez dakit. Egia esan, oso narrazio txukuna da... Agian, zilegi izan daiteke bi ikuspuntu horiek (fikzioa eta errealismoa) nolabait nahastea. Eta hori gertatzen denean, ez al gara egongo errealismo "magikoa" deitzen zaion edo horren antzekoa den zerbaiten aurrean...?

Edonola ere, istorioa oso gustura irakurtzen da. Ez zait batere kostatu amaierara iristea; eta egilearen idazkera, prosa deskribatzailea, iruditu zait oso erakargarria dela (zehatza, ekonomikoa eta, oro har, zorrotza). Bestalde, kontakizuna amaitzen duzunean, konturatzen zara zeinen narrazio indartsua den, eta oso sentsazio ona uzten dizu.

Nire ustez, kontaerari bigarren "azalpen" edo bigarren "zentzu" bat emateko, beharrezkoa da pertsonaia hauek zer sinbolizatzen duten ulertzen saiatzea. Hau da, zer sinbolizatzen duen protagonista nagusiak (= Miss Amelia Evans); zer sinbolizatzen duen Cousin Lymonek (= Txalkorra = Lymon Willis); zer sinbolizatzen duen Marvin Macyk; eta, azkenik, zein den gainerako pertsonaien zeregina.

Miss Amelia emakume zakarra da, gizonak nagusi izan ohi diren mundu zakar batean bizi dena. Mundu horretan bizirik irauteko, gizon baten pentsamoldea eta gorputza garatu ditu. Bere talaiatik, den-dena du kontrolpean. Marvin Macyrekin egin zuen ezkontzak ez zuen hamar egun baino gehiago iraun. Zergatik? Ziur aski, bere kontrola, bere posizioa eta bere talaia arriskuan ikusi zituelako. Zer esanik ez, Marvin Macyren moduko gizatxar batekin ezkonduz gero. Beraz, bere bizitzatik eta bere negoziotik bota zuen. Hori ez al da ehunka mila emakumeren beldurra, euren bizitza profesional eta pertsonala bigarren maila batean zokoratuta, "edukiz hustuta" ikustea: ezkondu, seme-alabak izan, etxeaz arduratu eta ezpainak lotu, "arbasoen ohitura sakratuari" jarraituz? McCullers idazle modernoak da,

zerbait prestatzen ari zen haren garaiko gizartean, eta agian kontakizun honek hori espresatu nahi zuen...

Esan beharra dago, bestalde, Miss Ameliak etika handirik gabe jokatu zuela. Marvin Macy serio ari zen; areago, bere ondasun guztiak jarri zituen Miss Ameliaren izenean. Itxuraz, bederen, hasia zen bere bizitzari zentzu bat ematen, eta bide ona hartu nahian omen zebilen. Baina Miss Ameliaren arbuioa erabatekoa eta aurreikustezina izan zen, baita ankerra ere. Areago, Miss Ameliaren ondasunekin alderatuta, Marvin Macyren ondasunak ezer gutxi baziren ere, ondasun horiek bere izenean jartzea onartu zuen... hura etxetik bota aurreko egunean! Bezperan, alegia!

Ze sinbolizatzen du Marvin Macyk narrazio honetan? Idealizazio oroz gabeturiko gizonezkoen generoa sinbolizatzen du. Miss Ameliarentzat arrotz bat da, mehatxu bat bezala sumatzen du. Miss Amelia ezin hobeto bizi da bere kasa, den-dena du kontrolatuta, eta inolako laguntzarik gabe lortu duen guztia pikotara bidal dezake gizon horrek. Gainera, bere buruarekin gustura sentitzeko ez du gizon baten beharrik. Are gutxiago gizon "horren" beharrik, zehazki.

Eta zer sinbolizatzen du Cousin Lymonek, "Txalkorra" ezizenez? Bera da narrazioko bigarren pertsonaia nagusia. Berez, gorputz deformatua duen nano bat da. Miss Ameliaren bizitzan ustekabean agertu da eta, pronostiko guztien aurka, bere etxean eta bere bizitzan onartu du. Miss Ameliak harenganako erakarmen itzela sentitzen du. Maitasuna jasotzeko eta batez ere maitasuna emateko, edota bakarrik ez egoteko premia sinbolizatzen du. Baita norbait zaintzeko, norbait babesteko premia ere...

Eta handik gutxira, ezin izango da bere "Txalkorra" gabe bizi. Historian zehar, hainbeste eta hainbeste emakumek amestutako gizona sinbolizatzen du. Baina, kontuz: maitasunak dena edertzen du, dena idealizatzen du. Ez du uzten itsuskeriak (giza arimaren itsuskeriak bereziki) ikusten. Maiteminduak ez du ikusten aurrean benetan zer daukan. "Sorginduta" dago. Hau ez da deusik berria; aitzitik, gizateria bezain zaharra da. Agian Cousin Lymon horrengatik da itsua eta deforma, barrutik zein kanpotik; Miss Amelia, ordea, horren aurrean itsua da. Ez du hura horrela ikusten.

Carson McCullers 1917an jaio eta 1967an hil zen. Emakume modernoa da... Gizarteak emakumeei eman nahi zien lekua zela-eta bere ondoeza adierazi nahi zuen idazle baten aurrean egon gintezke, hau da, interpretazio feminista bat egon daiteke istorioaren atzean. Eta ez amaiera zoriontsuarekin, hain zuzen ere. Alderantziz, gizonaren mundu desleiala eta

bortxazkoa garaile ateratzen da eta Miss Amelia suntsitzen du azkenean, zeren, bere akatsaz, bere ahuleziaz ohartzen denerako¹, beranduegi baita.

Eta gero, gainerako pertsonaiak daude. Gizartea, oro har, sinbolizatzen dutela uste dut —normalean begiratzera mugatzen den gizartea—; kasu honetan, gainera, ez dute esku hartzen ezta Cousin Lymonek Miss Ameliari bizkarretik erasotzen dionean ere. Eta horrek, borroka ez ezik, bere buruarekiko eta gizatasunarekiko fedea ere galaraziko dio Miss Ameliari.

Kontaketa beste modu batez interpretatzeko aukera ere badaukagu. Adibidez: Miss Amelia, Amerika sakonean sortutako izaki harrigarri bat da. Mito bat da. Haren izaera beregainak, haren ohiz kanpoko indarrak, haren 10 eguneko ezkontzak, Txalkorrarekin duen harremanak, haren nortasunak, sendalari / whisky destilatzaile / salerosle / eta abar eta abar gisa dituen trebeziek landa-eremuko biztanle guztien arreta erakarri dute, hura benetako mito (landa-eremuko mito) bihurtu arte. Baina haren Akilesen orpoak jokaldi makurra egin dio eta istorioa oso gaizki amaitzen da berarentzat. Kito.

Nolanahi ere, kontakizunaren "interpretazio erdi errealista erdi fantastiko" honek ez nau guztiz asetzen (onargarria, interesgarria eta polita bada ere). Nire iritziz, interpretazio sinbolikoa da kontakizunari hegoak ematen dizkiona. Litekeena da milaka eta milaka emakume identifikatuta sentitzea emetasunaren eta gizontasunaren eskemak apurtzen dituen pertsonaia honekin, zalantzan jartzeraino noraino merezi ote duen emakume batek bere buruari uko egitea, azkenik amaitzeko den-dena galduz... gizon baten erruz.

Neure buruari galde egiten diot zenbat emakumeri ez ote zaien ezaguna egin istorio hau...

¹ Harira ez datorren gogoeta bat: maitasuna jo dezakegu zibilizazio primitiboen "ahuleziazat", "aurreiritzizat" edo "tradiziotzat"...?